

# Izen arrunten proposamenak Euskal Herriko zenbait txori espezierentzat

SEOren eskariz eta EBOren zerrenda ofiziala osatze aldera



**EUSKAL  
BATZORDE ORNITOLOGIKOA**  
COMITÉ ORNITOLÓGICO  
DE EUSKADI

*Asier Sarasua, Aitor Galarza, Azaitz Unanue, Maite Laso,  
Gorka Gorospe, Gorka Belamendia, Juan Arizaga, Txema Fernandez*

Euskal Batzorde Ornitologikoa

2020



# Sarrera

**EBO - Euskal Batzorde Ornitológicoak** (COE, *Comité Ornitológico de Euskadi*) **2019ko** otsailean Gasteizko Kongresu Ornitológicoan<sup>1</sup> onartutako estatutuen<sup>2</sup> arabera, bere betekizunetako bat du Euskal Autonomia Erkidegoko hegaztien zerrendak argitaratzea, beste lurralde batzuetan egiten duten biderei jarraituz (adibidez, SEOk Espainia osorako<sup>3</sup>, ICOk Kataluniarako<sup>4</sup> eta AOSek Ipar Ameriketarako<sup>5</sup>). Hegazti zerrenda horietan gure lurraldean bizi diren hegazti guztien zerrenda argitaratzen dugu, euren taxonomia eguneratuarekin, estatusarekin eta izenarekin (zientifikoa, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa)<sup>6</sup>.

Behin behineko lehenengo bertsioa 2017an sareratu genuen eta, harrezkero, zerrenda eguneratuta mantentzea da Batzorde honen eginkizunetako bat, estatutuetan jasota dugun bezala: *“EAE n azken urteotan ikusi diren hegazti-espezie guztiak jasoko ditu, lurralde honetan duten estatusarekin batera. Erreferentziarako taxonomia bat ezartzeko ere balio beharko du eta, era berean, hegaztien euskarazko izendegia eguneratu eta euskarazko izen ofiziala zehazteko ere balio beharko du, Euskal Herriko hegaztiarena ez ezik, baita beste lurralde batzuetakoena ere”*.

Besteak beste, **taxonomian izan diren aldaketen jarraipena** egin behar da (espezie berriak deskribatu ahala edota taxoi aldaketak gertatu ahala) eta gure lurraldean agertzen diren espezie **arraro eta exotikoen** jarraipena ere egin behar da, sarritan ez dutelako euskarazko izenik. Jarraipen hori egiteko eta, batez ere, euskarazko izendegia eguneratuta mantentzeko, lantalde bat osatu zen 2019an Euskal Batzorde Ornitológicoaren baitan.

Lanbide horrekin hastear geundela, Sociedad Española de Ornitología (SEO) ***Lista de las aves de España*** berritua argitaratu zuen **2019ko maiatzean**<sup>7</sup>. Espainian inoiz ikusi izan diren 622 hegazti-espezie biltzen ditu, estatusaren eta kategoriaren arabera taldekatuta eta, lehenengo aldiz, euskarazko izenak ere bildu zituen zerrenda horretan (galizierazko eta katalanezko izendegiarekin batera). Hori dela eta, Euskal Batzorde Ornitológicoari laguntza eskatu ziguten eta euskarazko izendegia osatzen lagundu diegu, horretarako Euskalterm, Elhuyar Hiztegia, Hiztegi Batua eta Wikipedia kontsultatu ditugularik. Horrela sortu genuen hegaztien euskarazko egungo izendegiaren lehenengo bertsioa<sup>8</sup>.

Presaka egin beharreko lana izan zen, baina oso lagungarri izan zitzaigun: 1) hegaztien euskarazko izendegiaren egoera aztertzeke eta 2) Euskal Herriko espeziez gain, iberiar penintsula osoko ornitofaunaren zerrenda jasotzeko eta espezie horiek euskarazko izenik ote zuten aztertzeke.

Aipatu ditugun **622 espezie** horietatik, gehienek aspaldi daukate araututa euskarazko izen arrunta (**450 espezie inguru**, Euskal Herrian bizi diren gehientsuenak), baina **150 espezieen kasuan ez dugu aurkitu inon euskarazko izenik**, eta **25 espezieen kasuan aldaketa txikiak proposatu** ditugu, besteak beste, azken aldaketa taxonomikoei erantzuteko, alderdi linguistikoa

<sup>1</sup> <https://ornitologia.eus/kongresuak/ii-kongresu-ornitologikoa-gasteiz-2019/>

<sup>2</sup> <https://ornitologia.eus/batzordea/>

<sup>3</sup> <https://www.seo.org/listaavesdeespana/>

<sup>4</sup> <http://www.ornitologia.org/ca/>

<sup>5</sup> <https://americanornithology.org/publications/north-and-middle-american-checklist/>

<sup>6</sup> <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda>

<sup>7</sup> <https://www.seo.org/listaavesdeespana/>

<sup>8</sup> <https://ornitologia.eus/2019/05/14/espainiako-hegaztien-zerrenda-ofiziala-argitaratu-du-seok-euskarazko-izendegia-gaineratuta/>

koherentzia bermatzeko eta, oro har, beste arrazoi historiko txiki batzuegatik. Kasu horietan, euskal ornitologoen komunitateak onartu edo moldatu beharko ditu proposamenok, terminologian aditu diren eragileekin elkarlanean.

Horrekin batera, 2020an zehar, hegaztien behaketak biltzen dituzten hiru webgune ([eBird.org](http://eBird.org), [Reservoirbird.com](http://Reservoirbird.com) eta [Observation.org](http://Observation.org)) eguneratu eta euskaratu dira (kasu batzuetan gure laguntzarekin) eta horietan ere hegaztien euskarazko izendegiak behar izan ditugu, non euskarazko izen arauturik ez duten beste 90 hegazti-espezie identifikatu ditugun. Gainera, Europako hegaztien zerrenda<sup>9</sup> gainbegiratuta, beste 80 espezie inguru ere izan daitezke oraindik euskarazko izen arruntik ez dutenak.

Bien bitartean, azken urtean, animalien eta landareen izen arrunten inguruko gogoeta-talde bat sortu da, Aranzadik dinamizatuta. 15 laguneko talde zabala da, ondorengo alorretako ordezkariekin: ornitologia, herpetologia, odonatuak, lepidopteroak, botanika eta iktiologia. Talde honen helburu nagusia izan da atal horietan dagoen egoera aztertzea, esperientziak eta irizpideak trukatzeko eta hausnarketarako foro bat sortzea. Batzorde Ornitologikoko kide batek ere parte hartu du lantalde horretan hegaztien alorrean dagoen egoera azalduz eta gogoeta orokorretan parte hartuz. Lantalde horrek bilera eskatu dio Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordeari gai honen inguruko gogoeta egiteko eta alor bakoitzean dagoen kasuistika eta egoera aztertzeke<sup>10</sup>.

Dagoeneko 35 urte bete dira biologo belaunaldi oso batentzat kanonikoa izan den **Landare eta animalien izenak** argitaratu zenetik (UZEI, 1984<sup>11</sup>). Lan ikaragarria, euskararen normalkuntzan funtsezko izan zena eta hiru hamarkada hauetan hazi garen zoologo eta botanikoentzat erreferentzia ezinbestekoa. Hala ere, denbora tarte honetan, hegaztien munduan aldaketa handiak gertatu dira, besteak beste:

- Ikerketa genetikoaren garrantzia izugarri handitu da eta hegaztien taxonomian aldaketa handiak gertatu dira (eta gero eta bizkorrago gertatzen dira), genero mailan zein (azpi)espezie mailan, esate baterako, baina baita familia eta ordenen mailan ere, hurrenkera taxonomikoan aldaketa handiak izan ditugulako azkenengo 10-15 urteotan. Aldaketa horiek izendegian ere islatu behar dira.
- Ornitologoen kopurua eta ezagutza ikaragarri handitu dira eta duela 30-40 urte baino dozenaka espezie arraro gehiago ikusten dira gure lurraldean<sup>12,13</sup>. Kasu askotan Ameriketako edo Siberiako espezieak dira, garai batean identifikatzen ez genituenak, baina bai orain, eta euskarazko izenik ez dutenak.
- Amaitzeko, turismo ornitologikoaren eta globalizazioaren eraginez, gero eta aruntagoa da gure lurraldetik kanpoko espezieak ikustea, identifikatzea, behaketak webguneetan

---

<sup>9</sup> [https://en.wikipedia.org/wiki/List\\_of\\_birds\\_of\\_Europe](https://en.wikipedia.org/wiki/List_of_birds_of_Europe)

<sup>10</sup> Bilera 2023ko udaberrian egin da IVAP eta Terminologia Batzordeko ordezkariekin Eusko Jaurlaritzan eta alor honetan urratsak ematen jarraitzeko zenbait ideia jarri ditugu mahai gainean. Bilera horretara ere Euskal Batzorde Ornitologikoko kide bat joan da (*txosten honi 2023an gehitutako oharra da hau*).

<sup>11</sup> <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19840101/martxel>

<sup>12</sup> SEOk argitaratzen duen Espainiako hegaztien zerrendan, esate baterako, 2005ean 514 espezie zerrendatzen ziren; 2019koan, ordea, 622. Hau da, 112 espezie gehitu dira 15 urteko epean.

<sup>13</sup> Informazio osagarria Euskal Batzorde Ornitologikoaren ezohiko behaketen urteroko txostenetan eta SEOren Comité de Rarezasek 2-3 hilean behin argitaratzen dituen txostenetan. Bataren zein bestearen webguneetan dago informazio guztia.

gordetzea, sare sozialen bidez partekatzea... eta euskarazko izenik ezean, txorizaleok erdarazko izenetarako jo behar izaten dugu sarri-sarri, edo halamoduz 'asmatzen' ditugu euskarazkoak.

Martxel Aizpuruak 1984an gidatutako *Landare eta animalien izenak* liburuaren harira hauxe dio Aizpuruak berak<sup>14</sup>: "(izendegian) *agertzen diren zenbait forma aldatu egin beharko dira arau berriak eman direlako. Etengabeko eguneratu beharra bistako gauza da*". Uste dugu aukera polita izan daitekeela beharleku hori hartzeko eta hegaztien euskarazko izendegia aztertzeke eta finkatzeko, 1984az geroztik ez delako horrelako lan sistematikorik egin esparru honetan (bai eguneraketa txiki eta garrantzitsuak, noski). Are gehiago, jakinik, 1984an ere ez zela lan sistematikorik egin hegaztien arloan, neurri handi batean 1961ean Aranzadi Zientzia Elkarteak argitaratutako zerrenda<sup>15</sup> hartu eta osatu baitzen: "*Ez dugu (1961eko izendegiko) ezer aldatu motiboren batek ez baldin bagaitu horretara behartu. Izendegi ofizial baten aurrean zor den begirunez tratatua izan da alor hau*".

Horrela iritsi gara, bada, 2020. urte honetara. Azken 60 urteotan indarrean egon den izendegia begirunez tratatuz, baina egungo egoerara egokitu beharraz jakitun.

Laburbilduz, Euskal Batzorde Ornitologikoa lanean hasi da hegaztien euskarazko izendegia eguneratuta mantentzeko. Esku artean duzun dokumentu hau da lehenbidizko urratsa. SEOren eskarian oinarrituz, Iberiar Penintsulako hegaztien euskarazko izendegiaren behin behineko zerrenda osatu dugu eta Europako hegaztien izendegian egon daitezkeen hutsuneak ere identifikatu ditugu (921 espezie guztira, 250-300 inguru euskarazko izenik gabeak).

Lan honetan aritu gara EBO batzordeko zenbait kide (Aitor Galartza, Maite Laso, Azaitz Unanue, Gorka Gorospe eta Asier Sarasua), kanpoko beste zenbait aholkulari eta laguntzailerekin batera, besteak beste, Martin Rezola, Mikel Esclamadon, Xabier Saralegi eta Aitor Leitza.

Esan bezala, Espainiako hegaztien behin behineko zerrenda prest dugu dagoeneko, 2019-2020 bitartean Euskal Batzorde Ornitologikoak landu eta onartu dituen proposamenak bilduz. Orain, zerrenda honetan egiten diren proposamenak eztabaidatu eta adostea dagokigu ornitologo euskaldunoi.

Behin hori eginda, epe labur-ertainerako egon daitezkeen premia eta lehentasunak zehaztea etorriko litzateke, esate baterako, hegaztien izenak ezartzeko irizpide linguistiko-naturalistikoak adostea, Europako hegazti guztien euskarazko izendegia osatzea eta, batez ere, etengabeko eguneratze-lan bat abiarazteko dinamika bat adostea. Prozesu guztiak publiko eta gardena izan behar du, euskal ornitologo komunitatearekin eta terminologia lanetan ari diren eragileekin elkarlanean eta, batez ere, orain arteko lanak sakon ezagututa, errespetuz tratatuta eta lan horietan ibili direnak ahanzi gabe.

---

<sup>14</sup> <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19840101/martxel>

<sup>15</sup> *Repertorio de nombres vascos de aves adoptado por la sección de ornitología del grupo de C.N Aranzadi*. Munibe, 1961: 310-326. 1961.

# Proposamenak: aldaketak eta izen berriak

Gorago aipatu dugun bezala, Euskal Batzorde Ornitológico honen lanen artean dago Euskadiko hegaztien zerrenda ofiziala eguneratuta mantentzea eta online aurkeztea. 2020ko bertsioan 377 espezie dira zerrenda horretan ditugunak<sup>16</sup>. Horrekin batera, 2019-2020 bitartean Espainiako hegaztien euskarazko izenen zerrenda ere osatu dugu, SEO elkartearen eskaera bat aprobetxatuta.

Duela hilabete batzuk argitaratu du SEOk bere *Lista de las aves de España 2019*<sup>17</sup>. SEOk argitaratzen duen hirugarren zerrenda sistematikoa da eta 622 espezie bildu ditu, inoiz baino gehiago<sup>18</sup> (2005ko zerrendan 514 espezie; 2012koan 569 espezie), kategoriaka antolatuta eta beraien estatusarekin. Azken urteotan egon diren aldaketa taxonomikoei garrantzi berezia eman zaie eta hainbat espezierentzat egon diren aldaketak aipatzen dira (latinezko izenean, sailkapen taxonomikoan eta gaztelaniazko izenean). 2019ko edizioa berezi samarra ere izan da, euskarazko, katalanezko eta galizierazko izenak ere gehitu nahi izan dituelako SEOk eta horretarako laguntza eskatu diolako Euskal Batzorde Ornitológico honi. Horixe izan da txosten honetan aurkezten ditugun proposamenen abiapuntua, 622 espezie horien euskarazko izendegia osatzeko orduan txorien euskarazko izenen azterketa sakon bat egin dugulako, orain arte genituen zerrendetako hutsuneak aurkituz eta proposamenak eginez. Lan hau osatzeko ondorengo baliabideak erabili ditugu: Euskalterm, Elhuyar hiztegia, Hiztegi batua eta Wikipedia (kasu zehatz bakarren baterako).

Esan bezala, 622 espezie daude Espainiako Hegaztien zerrenda horretan. Euskarazko izenei dagokionez, hauxe zen egoera:

1. **450 espezie** inguruk aspaldi daukate zehaztuta euskarazko izen arrunt estandarra. Fase honetan ez gara saiatu izen horien azterketa kritikorik egiten. Izen horiek bere horretan laga ditugu zerrenda honetan, salbuespenak salbuespen, aspaldi araututa eta zabalduta dagoen izendegia inolaz ere zalantzan jarriz.
2. **33 espezieetan** aldaketa txikiak proposatu ditugu orain arteko euskarazko izen arruntetan. Kasurik gehienetan, alderdi linguistikoaren batasuna eta koherentzia bilatzea izan da helburua, edota azken aldaketa taxonomikoei irtenbidea aurkitzea. Kasu gutxi batzuetan beste arrazoi batzuegatik egindako proposamenak ere badaude (esate baterako, *Stercorarius* generoaren kasua).
3. **140 espezie** ingururentzat ez dugu aurkitu euskarazko izenik gorago aipatutako iturri terminologikoetan. Kasu horietan bi bide jarraitu ditugu:
  - Beste hizkuntza batzuetako ereduak jarraituz erraz izendatu zitezkeen espezieen kasuan, euskarazko izen arrunt bat proposatu dugu (**45 espezie** dira guztira).

<sup>16</sup> <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>

<sup>17</sup> <https://www.seo.org/2012/09/19/seobirdlife-elabora-una-nueva-lista-de-aves-de-espana/>

<sup>18</sup> “Este aumento también nos habla del incremento del nivel de la ornitología en nuestro país y del interés de ésta dentro del turismo ornitológico donde la observación de estas aves poco usuales o de fenómenos como la migración atrae cada vez a mayor número de aficionados y genera más interés económico”.

- **Beste 95 hegazti-espezieren** kasuan, ez gara ausartu euskarazko izenik proposatzen. Hurrengo fase baterako geratuko da hutsune horiek betetzea (Europako beste 150 bat txoriren izenekin batera).

Hegaztien zerrenda osoa Euskal Batzorde Ornitologikoaren webgunean argitaratu dugu<sup>19</sup>. Txosten honetan aurkezten ditugu 2. eta 3. puntuetan hartutako erabakiak eta horien inguruko oharrak.

## Aldaketa taxonomikoak: azpiespezieak eta espezieak

Garai bateko *Hippolais pallida* (sasi-txori zurizta) 2 espezietan banatu da eta ondorengo izenak proposatu ditugu:

- *Iduna pallida*: Ekialdeko sasi-txori zurizta (Zarcero pálido, Eastern Olivaceous Warbler)
- *Iduna opaca*: Mendebaldeko sasi-txori zurizta (Zarcero bereber, Western Olivaceous Warbler)

Garai bateko *Fringilla teydea* (txonta urdina) 2 espezietan banatu da eta ondorengo izenak proposatu ditugu:

- *Fringilla teydea*: Tenerifeko txonta urdin (Pinzón azul de Tenerife, Tenerife Blue Chaffinch)
- *Fringilla polatzeki*: Kanaria Handiko txonta urdin (Pinzón azul de Gran Canaria, Gran Canaria Blue Chaffinch)

Garai bateko *Lanius excubitor* (antzandobi handia) 2 espezietan banatu da eta ondorengo izenak proposatu ditugu:

- *Lanius excubitor*: Antzandobi handi arrunt (Alcaudón norteño, Great Grey Shrike)
- *Lanius meridionalis*: Antzandobi handi iberiar (Alcaudón real, Southern Grey Shrike)

Garai bateko *Calonectris diomedea* (gabai arrea) 3 espezietan banatu da eta ondorengo izenak proposatu ditugu:

- *Calonectris diomedea*: Gabai arre mediterraneo (Pardela cenicienta mediterránea, Scopoli's Shearwater)
- *Calonectris borealis*: Gabai arre atlantiko (Pardela cenicienta canaria, Cory's Shearwater)
- *Calonectris edwardsii*: Cabo Verdeko gabai (Pardela cenicienta caboverdiana. Cape Verde Shearwater)

Gabai txikien artean ere aldaketa taxonomikoak egon dira. Orain 2 espezie hauek azaltzen dira Espainiako hegaztien zerrendan eta ondorengo izenak proposatzen ditugu:

- *Puffinus baroli*: Gabai txiki (Pardela chica, Barolo Shearwater). Adi!, garai batean *Puffinus assimilis* espeziearentzat ere erabili izan baita euskaraz “gabai txiki” izena.
- *Puffinus boydi*: Boyd gabai (Pardela chica de Cabo Verde, Boyd's Shearwater)

<sup>19</sup> <https://ornitologia.eus/2019/05/14/espainiako-hegaztien-zerrenda-ofiziala-argitaratu-du-seok-euskarazko-izendegia-gaineratuta/>

# Aldaketa txikien proposamenak

Ondorengo espezieen kasuan aldaketa txikiak proposatzen ditugu orain arteko izen estandarrekin alderatuta.

## 1.- Hegal- vs. Hego-

*Spatula discors*: **Zertzeta hegalurdin** (Cerceta aliazul, Blue-winged Teal)

“Zertzeta hegourdin” azaltzen da Euskaltermen, baina antzeko beste izen batzuen egiturari jarraituz, zertzeta hegalurdina hobetsi dugu (martin hegalzuria, kaio hegalzuria, itsas enara hegalzuria eta abar bezala).

*Glareola nordmanni*: **Pratinkola hegalbeltz** (Canastera alinegra, Black-winged Pratincole)

“Pratinkola hegobeltz” azaltzen da Euskaltermen, baina antzeko beste izen batzuen egiturari jarraituz, pratinkola hegalbeltza hobetsi dugu (martin hegalzuria, kaio hegalzuria, itsas enara hegalzuria eta abar bezala).

2.- *Podiceps nigricollis*: **Txilinporta lepabeltz** (Zampullín cuellinegro, Black-necked Grebe)

“Txilinporta lepo-beltz” azaltzen da Euskaltermen, baina antzeko beste izen batzuen egiturari jarraituz, txilinporta lepabeltza hobetsi dugu (murgil lepagorria, mirotz lepagorria, txirri lepagorria eta abar bezala).

3.- *Luscinia svecica*: **Papourdin** (Pechiazul, Bluethroat)

“Papo-urdin” agertzen da Euskaltermen eta Elhuyarren; “papourdin”, aldiz, Wikipedian. Antzeko beste izen batzuen egiturari jarraituz, papourdina hobetsi dugu (berdantza papohori, pinguino papozuri, urretxindor paparzuri, sai papargorri, karraka paparmore, eta abar bezala).

## 4.- Marikakak

“Marikoi” hitza aukeratu zen 1984ko izendegian *Stercorarius* generoko hegaztiak izendatzeko. Garai hartan ere izen horren desegokitasuna aipatu izan zen, baina 35 urtez halaxe izendatu dira hegazti hauek euskarazko argitalpen gehienetan. Euskal Herriko kostaldean beste izen batzuk erabili izan dira hegazti-familia hau izendatzeko (mariko, marikaka, kakajale, kakax,...) eta, hortaz, badugu non aukeratu orain arte erabili izan den izen desegokia ordezkatzeko. Guk marikaka-ren aldeko hautua egin dugu, Wikipediak egin duen bezala. Gainontzean, bere horretan utzi ditugu orain arteko zerrendetan erabili izan diren izenlagun espezifikoak.

*Stercorarius skua*: Marikaka handi (Págalo grande, Great Skua)

*Stercorarius pomarinus*: Marikaka isatsbihur (Págalo pomarino, Pomarine Jaeger)

*Stercorarius parasiticus*: Marikaka isatslabur (Págalo parásito, Parasitic Jaeger)

*Stercorarius longicaudus*: Marikaka isatsluze (Págalo rabero, Long-tailed Jaeger)

*Stercorarius maccormicki*: Marikaka antartiko (Págalo polar, South Polar Skua)

5.- *Ciconia ciconia*: **Zikoina zuri** (Cigüeña blanca, White Stork)

*Ciconia nigra*: **Zikoina beltz** (Cigüeña negra, Black Stork)

“Zikoina” eta “amiamoko” hitzak erabili izan dira euskara estandarrean *Ciconia* generoko hegaztiak izendatzeko; hiztegietan sinonimo gisa agertzen dira. Zikoina hitzaren hedadura askoz zabalagoa da eta amiamoko hitza ardeidoak izendatzeko erabili izan da tradizioan (Lapurdin). Hori dela eta, zikoina hobetsi dugu espezie hauek izendatzeko, amiamoko baino argiagoa delako. Gainera, nahiko balitz, Ardeidoak izendatzeko libre geratuko litzaiguke tradizioko amiamoko generikoa.



## 6.- *Ardea alba*: **Koartza zuri** (Garceta grande, Great Egret)

“Koartzatxo handi” bezala izendatu izan da azkenaldian espezie hau. Garai batean *Egretta alba* bezala ezagutzen zena, azken aldaketa taxonomikoen ondoren *Ardea alba* izatera igaro da, koartza hauskara (*Ardea cinerea*) eta koartza gorria (*Ardea purpurea*) bezala *Ardea* generoaren baitan. Aldaketa sistematiko horren ondoren, eta kontuan izanik neurritz ere Euskal Herrian aurkitu dezakegun ardeidorik handienetakoa dela (koartza hauskararekin batera), uste dugu askoz izen egokiagoa dela “koartza zuria”, azkenaldian erabili izan den “koartzatxo” baino, ez baita, ez neurritz eta ez sistematikoki, koartzatxo bat. Horrela KOARTZA handiak (*Ardea* generoa) izango genituzke alde batetik, eta koartza txikiagoak (*Ardeola*, *Egretta* eta abar) KOARTZATXO bezala.

## 7.- Generikoa + espezifikoa

*Morus bassanus*: **Zanga arrunt** (Alcatraz atlántico, Northern Gannet)

“Zanga” azaltzen da Euskaltermen, baina izen generikoa da hori (beste hainbat sulido ere badira, zanga hankagorria, zanga iluna,...). Hori dela eta, uste dugu egokia dela izenlaguna eranstea izen generikoari, inguruko hizkuntzetan bezala.

*Accipiter nisus*: **Gabirai arrunt** (Gavilán común, Eurasian Sparrowhawk)

“Gabirai” azaltzen da Euskaltermen, baina izen generikoa da hori (beste hainbat gabirai ere badirelako munduan). Hori dela eta, uste dugu egokia dela izenlaguna eranstea izen generikoari, inguruko hizkuntzetan bezala.

*Coracias garrulus*: **Karraka europar** (Carraca europea, European Roller)

“Karraka” azaltzen da Euskaltermen, baina izen generikoa da hori (beste karraka espezie bat ere, gutxienez, ikusi daiteke gure inguruan). Hori dela eta, uste dugu egokia dela izenlaguna eranstea izen generikoari, inguruko hizkuntzetan bezala.

*Streptopelia turtur*: **Usapal europar** (Tórtola europea, European Turtle Dove)

“Usapal” azaltzen da Euskaltermen, baina izen generikoa da hori (beste usapal espezie bat ere, gutxienez, ikusi daiteke Euskal Herrian bertan). Hori dela eta, uste dugu egokia dela izenlaguna eranstea izen generikoari, inguruko hizkuntzetan bezala.

## 8.- Urre-txirriak

Oso itxura antzekoa duten *Pluvialis* generoko 3 espezie dira urre-txirriak. Hiruren hedadura eta itxura aztertuta, horrela izendatzea proposatzen dugu, inguruko hizkuntzen antzera (orain arte lehenengo biek bakarrik zeukaten euskarazko izena, urre-txirri arrunt eta urre-txirri txiki):

- *Pluvialis apricaria*: **Urre-txirri europar** (Chorlito dorado europeo, European Golden Plover)
- *Pluvialis dominica*: **Urre-txirri amerikar** (Chorlito dorado americano, American Golden Plover)
- *Pluvialis fulva*: **Urre-txirri siberiar** (Chorlito dorado siberiano, Pacific Golden Plover)

## 9.- *Chroicocephalus* generoa

Ondorengo bi espezieak *Larus* generoan zeuden sailkatuta duela urte batzuk arte. Orain, berriz, *Chroicocephalus* generoan. Ondorioz, egokiagoa da antxeta bezala izendatzea, kaioen artean sailkatzea baino, itxuraz eta sistematikaz antxetak baitira.

- *Chroicocephalus genei*: **Antxeta mokozorrotz** (Gaviota picofina, Slender-billed Gull)
- *Chroicocephalus melanocephalus*: **Antxeta burubeltz** (Gaviota cabecinegra, Mediterranean Gull)

**10.- *Aegolius funereus*: Hontz boreal** (Mochuelo boreal, Boreal Owl)

Garai bateko Tengmalm hontza azaltzen da Euskaltermen, baina hontz boreala hobetsi dugu, inguruko hizkuntzetan bezala.

**11.- *Chersophilus duponti*: Dupont hegatzabal** (Alondra ricotí, Dupont's Lark)

Euskaltermen ez da jaso espezie hau. Beste zerrenda batzuetan "Portugalgo pirripio" eta "Dupont hegatzabal" erabili izan dira azkenaldian, eta bigarren horren alde egingo genuke guk, egokiagoa baita espezie horren ezaugarriak, kokapen taxonomikoa eta nazioarteko izendapena kontuan hartuta.

**12.- *Phylloscopus trochiloides*: Txio berdexka** (Mosquitero verdoso, Greenish Warbler)

Euskaltermen agertzen den "txio trokiloidearen" ordez. Askoz argiagoa iruditzen zaigu, eta nazioarteko eredutik hurbilago.

**13.- *Delichon urbicum*: Enara azpizuria > ipurzuria** ('enara ipurgorriaren' eredua jarraituz)

"Azpizuria" baino, "ipurzuria" beharko luke enara honek. Askoz zehatzagoa da eta herri mailan ere ohikoa da "ipurzuri" izendapena. Izan ere, gure inguruko enara guztiak dira azpizuriak, baina kasu honetan ipurdi zuria izatea da bere berezitasuna. Gainera, "enara ipurgorria" ere badugu. Hortaz, eredu hori jarraituz, zehatzagoa eta argigarriagoa da "enara ipurzuria", "enara azpizuria" baino.

## Izendapen berriak (proposamenak)

Ondorengo espezieek ez zeukaten euskarazko izen estandarizaturik edo erabatekorik guk aztertutako erreferentziazko guneetan (Euskalterm, Elhuyar hiztegia eta Euskaltzaindiaren hiztegia), nahiz eta kasu batzuetan aipameneren bat badagoen han edo hemen, beste zerrenda edo argitalpenen batean zein Wikipedian.

Hauexek dira gure proposamenak:

- *Aythya affinis*: Murgilari txiki (Porrón bola, Lesser Scaup)
- *Melanitta perspicillata*: Ahatebeltz kopetazuri (Negrón careto, Surf Scoter)
- *Melanitta fusca*: Ahatebeltz hegalezuri europar (Negrón especulado, Velvet Scoter)
- *Melanitta deglandi*: Ahatebeltz hegalezuri amerikar (Negrón aliblanco, White-winged Scoter)
- *Gavia pacifica*: Pazifikoko aliota (Colimbo del Pacífico, Pacific Loon)
- *Oceanodroma monorhis*: Swinhoe ekaitz-txori (Paño de Swinhoe, Swinhoe's Storm Petrel)
- *Puffinus mauretanicus*: Gabai balear (Pardela balear, Balearic Shearwater)
- *Bulweria bulwerii*: Bulwer petrel (Petrel de Bulwer, Bulwer's Petrel)
- *Crex egregia*: Giloi afrikar (Guión africano, African Crane)
- *Porphyrio alleni*: Allen uroilo (Calamoncillo africano, Allen's Gallinule)
- *Gallinula angulata*: Uroilo txiki (Gallineta chica, Lesser Moorhen)
- *Antigone canadensis*: Kurrilo kanadar (Grulla canadiense, Sandhill Crane)
- *Haematopus meadewaldoi* (†): Itsas mika kanariar (Ostrero negro canario, Canary Islands Oystercatcher)
- *Pluvianus aegyptius*: Txirri egiptoar (Pluvial, Egyptian Plover)
- *Calidris tenuirostris*: Txirri handi (Correlimos grande, Great Knot)
- *Calidris melanotos*: Txirri pektoral (Correlimos pectoral, Pectoral Sandpiper)
- *Gallinago delicata*: Wilson istingor (Agachadiza de Wilson, Wilson's Snipe)
- *Tringa flavipes*: Kuliska hankahori txiki (Archibebe patigualdo chico, Lesser Yellowlegs)
- *Tringa melanoleuca*: Kuliska hankahori handi (Archibebe patigualdo grande, Greater Yellowlegs)
- *Larus delawarensis*: Delawareko kaio (Gaviota de Delaware, Ring-billed Gull)
- *Larus smithsonianus*: Kaio hausgara amerikar (Gaviota argétea americana, American Herring Gull)
- *Larus cachinnans*: Kaio kaspiar (Gaviota del Caspio, Caspian Gull)
- *Apus caffer*: Sorbeltz ipurzuri (Vencejo cafre, White-rumped Swift)
- *Coracias abyssinicus*: Karraka abisiniar (Carraca abisinia, Abyssinian Roller)
- *Pica mauritanica*: Mika magrebtar (Urraca magrebí, Maghreb Magpie)
- *Cyanistes teneriffae*: Amilotx urdin afrikar (Herrerillo canario, African Blue Tit)
- *Phylloscopus humei*: Hume txio (Mosquitero de Hume, Hume's Leaf Warbler)
- *Phylloscopus proregulus*: Txio erregetxo (Mosquitero de Pallas, Pallas's Leaf Warbler)
- *Phylloscopus canariensis*: Txio kanariar (Mosquitero canario, Canary Islands Chiffchaff)
- *Acrocephalus dumetorum*: Zuhaxka-lezkari (Carricero de Blyth, Blyth's Reed Warbler)
- *Sylvia balearica*: Txinbo balear (Curruca balear, Balearic Warbler)
- *Sylvia subalpina*: Moltoni txinbo (Curruca subalpina, Moltoni's Warbler)

- *Sylvia ruppeli*: Rüpell txinbo (Curruca de Rüppell, Rüppell's Warbler)
- *Phoenichurus moussieri*: Moussier buztangorri (Colirrojo diademado, Moussier's Redstart)
- *Saxicola maurus*: Pitxartxar siberiar (Tarabilla siberiana, Siberian Stonechat)
- *Anthus godlewskii*: Godlewski txirta (Bisbita estepario, Blyth's Pipit)
- *Acanthis flammea*: Txoka txiki (Pardillo norteño, Redpoll)
- *Emberiza sahari*: Saharako berdantza (Escribano sahariano, House Bunting)
- *Emberiza pusilla*: Berdantza txiki (Escribano pigmeo, Little Bunting)
- *Sibirionetta formosa*: Baikaleko zertzeta (Cerceta del Baikal, Baikal Teal)
- *Lophodytes cucullatus*: Zerra txanodun (Serreta capuchona, Hooded Merganser)
- *Pelecanus rufescens*: Pelikano gorrizta (Pelícano rosado, Pink-backed Pelican)
- *Aix sponsa*: Ahate karolinar (pato joyuyo o de Carolina, wood duck or Carolina duck)